

Ordizian, **2013ko urtarrilaren 31an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jn.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra and.

BERTARATUAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2012ko azaroaren 29 an ohiko deialdian egindako Osoko Bileraren aktaren zirriborroa onartzea.
.....4.orr.
- 2.- 2012ko abenduaren 20an ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.
.....4.orr.
- 3.- Udal talde Sozialistaren Mozioa, Herritarren Partaidetzari buruzko Akordio Markoaren inguruan aurkeztutakoa.
.....4.orr.
- 4.- Udal talde Sozialistaren Mozioa, pentsioak eguneratzearen eta errealizatzearen aldekoa
.....4.orr.
- 5.- Udal talde Sozialistaren Mozioa, Indian ematen den genero indarkeriaren aurka.
.....4.orr.
- 6.- EBPN Plan Estrategikoaren luzapena onartzea 2013 urterako.
.....4.orr.
- 7.- 2010-06-25eko Osoko bilkuran onartutako bermearen luzapena onartzea, Ordizia Lantzen S.A.k permuta bidezko kontratuen bidez Ordiziako "San Joan" 22 HIE n lursailak erosteko
.....4.orr.
- 8.- Alkatetza Dekretuaren berrespena, Ordizia Lantzen SA Udal Elkartearentzako abalaren ingurukoa.
.....4.orr.
- 9.- San Joan HIE 22ko a.30.7 lursailaren xehetasun azterketa behin betiko onartzea.
.....4.orr.
- 10.- San Joan HIE 22ko a.30.1 lursailaren Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.
.....4.orr.
- 11.- Kooperazio eta Garapen arloko 2012ko diru-laguntzak banatzea onartzea.
.....4.orr.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.00ak.

AMAIERA ORDUA: 19:40ak.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2012ko azaroaren 29an ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2012ko azaroaren 29an ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.- 2012ko abenduaren 20an ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

2012ko abenduaren 20an ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3.- Udal talde Sozialistaren Mozioa, Herritarren Partaidetzari buruzko Akordio Markoaren inguruan aurkeztutakoa.

Proposamena

FUNTSA

Udaleko osoko bilkuran, 2011ko maiatzaren 16an, eguneko gai-ordeneko puntu baten berri eman zen, Ordizian Herritarren Partaidetzarako Akordio Marko bat egiteari buruzkoa. Akordio Marko hau bozkatu egin zen, eta aurreko legealdian Udalbatza osatzen zuten talde politiko guztien (EAJ-PNV, PSE-EE, EA, Aralar, EB/Berdeak) aldeko bozkarekin aho batez onartu zen, PP izan ezik, ez baitzegoen batzorde horretan.

Aipatutako akordioan gure udalerrian dauden partaidetza mekanismoak ordenatu, arautu eta babesteko marko bateratu bat finkatu nahi zen. Herritarren partaidetzari buruzko Ordiziako Akordio marko hori aurreko legealdian Udal honek sustatutako kultura politiko berri baten adierazpena izan zen.

Akordio Markoa bera herritarren partaidetzaren fruitu izan zen, Ordiziako herritarrek eta zenbait ordezkari politikok osatutako lan-taldearen eskortzuarekin eta dedikazioarekin ateratako produktua izan baitzen.

Ordiziako PSE-EEK aipatutako Akordio Markoan azaltzen diren irizpide eta helburuak babesten jarraitzen du, eta kontuan hartuta Udalean alderdi politiko berria dagoela, eta udal gobernu talde berriak askotan eta publikoki adierazten duela herritarren partaidetza sustatzeko borondatea, Ordiziako PSE-EEK uste du une egokia dela Udal honek gure herrian herritarren partaidetza babesteko, zuzentzeko, arautzeko markoaren aldeko apostua berresteko.

HORREGATIK GUZTIAGATIK ETA OSOKO BILKURAKO AKORDIO HONEN BITARTEZ

OSOKO BILKURA honek herritarren partaidetza sustatzeko apostuaren alde egiten du eta 2011ko maiatzaren 16ko osoko bilkuran onartutako **ORDIZIAKO HERRITARREN PARTAIDETZA**ri buruzko **AKORDIO MARKO**aren aldeko onarpenezko erabakia berresten du.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn:

Adierazi du aurreko legealdiko 2011ko maiatzaren 16ko Udal Osoko Bilkuran, Ordizian Herritarren Partaidetzarako Akordio Markoa onartu zela, gure udalerrian dauden partaidetza mekanismoak ordenatu, arautu eta babesteko marko bateratu bat finkatzeko. Erabaki hori hartu zenean Bildu ez zegoenez, mozio honen bitartez orduan hartutako erabakia berrestea proposatzen da, Udaleko talde guztien babesa izan dezan.

Intsausti and:

Adierazi du Udal-korporazio berria osatu zenetik, partehartzea bultzatu dela, eta hiru bide hauek jorratu direla:

- Martxan zeuden Batzordeekin jarraitu, eta berriak eratu dira.
- Auzoz-azoko antolamendu eta dinamikak martxan jarri dira.
- Oianguko parte-hartze prozesua ireki da.

Bukatu du esanez, akordio-markoaren barruan berrartuko dela Oianguko parte-hartzeko prozesuan egin den dokumentua.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Udal talde Sozialistaren Mozioa, pentsioak eguneratzearen eta errebalorizatzearen aldekoa

Proposamena

OINARRIAK

Iragan azaroaren 30ean jakin genuen inflazioa % 2,9ra iritsi zela. Datu horrekin igo ohi dira pentsioak, pentsiodunek erosteko ahalmena gal ez dezaten. Aurten, ordea, ez da hala izango, Estatuko Gobernuak erabaki baitu ez dituela pentsioak errebalorizatuko 2012ko prezioen desbideratzearen arabera.

Batetik, Gobernuak konpentsazio-pagen ordainketa bertan behera utzi du; hau da, urtarrilaren bukaera aldera kobratu ohi den paga. Aipatu paga horrekin pentsiodunei ordainketa bakar baten bidez urte hasieran pentsioak igo zirenen (kasu honetan, % 1) eta prezioak igo direnen (% 2,9) arteko aldea ordaintzen zaie. Eta, halaber, Gobernuak pentsioak igo ditu 2013an, baina prezioek izan duten igoera baino gutxiago. 1.000 euro baino gutxiagoko pentsioek % 2 egin dute gora, eta gainerakoek % 1. Kopuru horiek, nolana ere, urruti geratzen dira bizitzaren kostuak izan duen igoeratik: % 2,9.

Mariano Rajoyren gobernuaren erabaki horrek esan nahi du pentsiodun guztiei, euskaldunei barne, errenta-gaitasuna murriztuko zaiela, eta, horrenbestez, haien bizi-kalitatea.

Gure iritziz, erabaki hori isilpean hartu da, hautesleei ezkutatzeko ez zituztela pentsioak eguneratuko. Horrez gain, BEZa eta bestelako zerga batzuk igota, inoiz ez bezalako eraso egin zaie adindunei eta pentsiodunei, eta horrek erantzun bat behar du.

Erabaki hori konstituzionala ote den zalantza handiak daude, izan ere Konstituzioaren 9.3 artikulua xedatutakoaren arabera: "Konstituzioak bermatzen du gizabanakoen eskubideen aldeko ez diren edo murriztaileak diren xedapen zehatzaileen atzeraeraginik eza". Pentsiodunei konpentsazio-paga hori kentzeak berarekin dakar 2012an zehar hilabetez hilabete finkatuz joan diren eskubidea kentzea, eta horrek esan nahi du paga jasotzea bermatzen zuten Estatuko 2012ko aurrekontu orokorretan xedatutakoa urratzea.

Hori dela-eta, Udal honetako udal-alderdi sozialistak honako MOZIOA aurkeztu du onar dadin:

1.- Udaleko osoko bilkurak gaitzetsi egiten du Espainiako Gobernuak pentsioak 2012an prezioek izan duten desbideratzearen arabera ez errebalorizatzeako, eta, halaber, konpentsazio-paga ez ordaintzeko hartutako erabakia, izan ere Espainiako Gobernuaren murrizketa berri horrek ez baitu kontuan hartzen kaltetuen egoera ahul berezia.

2 - Udaleko osoko bilkurak legitimatuak eta bereziki EAeko hiru barrutietatik aukeratutako diputatuak eta senatariak eta arartekoa premiatzen ditu, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoko 32. artikulua arabera, Gizarte Segurantzako sistema finkatzeko eta bermatzeko neurriei buruzko azaroaren 30eko 28/2012 Errege Dekretuaren aurrean konstituzio kontraketatasuneko errekurtsoa aurkeztera.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn

Adierazi du ikusita batetik Estatuko Gobernuak ez dituela pentsioak errealizatu 2012ko prezioen desbideratzearen arabera, eta bestetik konpentsazio-pagen ordainketa ere bertan behera utzi duela, mozio honen bitartez Estatu Gobernuari errektifikatzeko eskatzen zaiola, eta Udal hau ez dagoela ados hartutako neurri horiekin. Jarraitu du esanez jakinda Bildu taldeak ez duela begi onez ikusten 2. puntua, ez duela arazorik mozioa birmoldatzeko.

Alkate jn:

Adierazi du Bilduk ez duela inongo arazorik mozioa onartzeko, baina 2. puntuan aipatzen den markoa ez dela beraiek defendatzen dutena, horregatik ez daudela ados 2. puntuarekin.

Santamaria jn:

Adierazi du bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela, baina demagogikoa iruditzen zaiola orain ekartzea, PSE alderdiak bere garaian pentsioak kongelatu zituenean.

Dubreuil jn:

Adierazi du, autokritika egitea ez dela inoiz ere demagogia egitea, baizik eta egindako akatsak errekonozitzea berriro errepikatu ez daitezen.

Proposatu da mozioaren 2. puntua kentzea, beraz honela geratzen da bozketan jarri beharrekoa:

Proposamena

OINARRIAK

Iragan azaroaren 30ean jakin genuen inflazioa % 2,9ra iritsi zela. Datu horrekin igo ohi dira pentsioak, pentsiodunek erosteko ahalmena gal ez dezaten. Aurten, ordea, ez da hala izango, Estatuko Gobernuak erabaki baitu ez dituela pentsioak errealizatuko 2012ko prezioen desbideratzearen arabera.

Batetik, Gobernuak konpentsazio-pagen ordainketa bertan behera utzi du; hau da, urtarrilaren bukaera aldera kobratu ohi den paga. Aipatu paga horrekin pentsiodunei ordainketa bakar baten bidez urte hasieran pentsioak igo zirenen (kasu honetan, % 1) eta prezioak igo direnen (% 2,9) arteko aldea

ordaintzen zaie. Eta, halaber, Gobernuak pentsioak igo ditu 2013an, baina prezioek izan duten igoera baino gutxiago. 1.000 euro baino gutxiagoko pentsioek % 2 egin dute gora, eta gainerakoek % 1. Kopuru horiek, nolahi ere, urruti geratzen dira bizitzaren kostuak izan duen igoeratik: % 2,9.

Mariano Rajoyren gobernuaren erabaki horrek esan nahi du pentsiodun guztiei, euskaldunei barne, errenta-gaitasuna murriztuko zaiela, eta, horrenbestez, haien bizi-kalitatea.

Gure iritziz, erabaki hori isilpean hartu da, hautesleei ezkutatzeko ez zituztela pentsioak eguneratuko. Horrez gain, BEZa eta bestelako zerga batzuk igota, inoiz ez bezalako eraso egin zaie adindunei eta pentsiodunei, eta horrek erantzun bat behar du.

Erabaki hori konstituzionala ote den zalantza handiak daude, izan ere Konstituzioaren 9.3 artikulua xedatutakoaren arabera: "Konstituzioak bermatzen du gizabanakoen eskubideen aldeko ez diren edo murriztaileak diren xedapen zehatzaileen atzeraeragirik eza". Pentsiodunei konpentsazio-paga hori kentzeak berarekin dakar 2012an zehar hilabetez hilabete finkatuz joan diren eskubidea kentzea, eta horrek esan nahi du paga jasotzea bermatzen zuten Estatuko 2012ko aurrekontu orokorretan xedatutakoa urratzea.

Hori dela-eta, Udal honetako udal-alderdi sozialistak honako MOZIOA aurkeztu du onar dadin:

1.- Udaleko osoko bilkurak gaitzetsi egiten du Espainiako Gobernuak pentsioak 2012an prezioek izan duten desbideratzeen arabera ez errealizatzeko, eta, halaber, konpentsazio-paga ez ordaintzeko hartutako erabakia, izan ere Espainiako Gobernuaren murrizketa berri horrek ez baitu kontuan hartzen kaltetuen egoera ahul berezia.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Udal talde Sozialistaren Mozioa, Indian ematen den genero indarkeriaren aurka.

Proposamena

OINARRIAK

Amorrua, sumindura eta kommozioa sortu ditu Delhi hiriburuan abenduaren 16ko gauean autobus batean 23 urteko ikasle bat talde batek bortxatu izanak. Delhiko Delituen Erregistro Bulegoko Nazio Erregistroek 572 bortxaketa-salaketa jaso zituen 2011n. 2012an, abenduaren 15ean, 635 salaketa zeuden. Bortxaketak ez du soilik Delhi zigortzen. 2012ko azken hilabeteetan jasotako datuen arabera, emakumeen aurkako delinkuentzia herrialdeko bazter guztietara zabaldu da, baita Haryanara, Kerala eta Bangalorera ere.

Bortxaketa baten berri eman den bakoitzean, gizarte zibilak amorruez eta suminduraz erantzun du; alabaina, tamalez, amorruek eta suminduraz horiek itzali eta ahantzi egiten dira, hurrengora arte. Iraganean, eta orain, taldean egindako bortxaketa hori dela-eta, asko izan dira aipatu diren soluzioak. Horietako batzuk dira:

1. Bide azkarreko auzitegiak sortzea (berriki Rajasthanen sortutakoa, kasu), epaiketa azkarrak bermatze aldera.
2. Kasu hauetan ezar daitezkeen gehieneko zigorra, eredugarria, jartzea.
3. Emakumeen aurkako delituekin lotura duten ebatzi gabeko kasu guztiak ebaztea.
4. Poliziek emakumeen aurkako delituen inguruan prestakuntza jasotzea eta horien inguruan sensibilizatzea berehalakoan. Delitu horien artean barne sarturik etxeko indarkeria, sexu-gehiegikeria eta eraso sexuala.
5. Emakumeak babestea (2012ko proiektu-legeak eta 2012ko zigor-legeak –zuzenketa- jasotzen duen emakumeak lanpostuetan sexu-jazarpenaren aurka babestea barne) helburu izango duten legeak indarrean sartzea.
6. Giza Baliabideen Ministerioaren azterketa haurrak eskola-informazioaren bitartez sensibilizatzeko.
7. Nazio-mailan, misoginiari, emakumeen aurkako gero eta kontrakotasun handiagoari eta emakumeen aurka gertatzen ari diren gero eta krimen gehiagori aurre egiteko modu egokienari buruzko kontsulta irekiak gizarte zibilarekin eta bestelako gizarte-eragileekin.

Nahiz eta emakume ugari egon aitzindaritzan politikoan, TrustLaw-k egindako inkesta batek dio India dela munduko herrialderik okerrera emakumeentzat. Emakumeek beren autonomia eta independentzia gero eta gehiago eskatzen duten garai honetan, delitugileek, legeari inolako beldurrik gabe, inpunitate osoa gauzatzen dituzte emakumeen aurkako delituak. Genero-justiziarik ez egoteak, legearekiko beldurrik ezak, polizia judizialik ez egoteak eta arduragabekeriak, gobernagarritasun ezak eta eremu publikoak murrizteak kezka sortzen dute, ez soilik emakumeei, baita herrialde horretako herritar guztiei ere.

Bestalde, eta kontuan hartuta:

- Genero-indarkeria giza eskubideen kontua da, tokian-tokian, eskualde-mailan, nazio-mailan nahiz nazioartean eragiten duena.
- Aurrerapen teknologikoen bidea ematen digute mundu osoan gertatzen diren gauzen inguruan informaturik egoteko, eta, halaber, aukera ematen digute nazioarteko edozein motatako kanpainak ezagutzeko eta horietan parte hartzeko; horrela, edozein pertsonak du aukera kanpaina bat abiarazteko eta berehalakoan ehunka, milaka, nahiz dozenaka mila pertsona mobilizatzeko mundu osoan barrena, gobernuak eta enpresek kontuak ematea lortuz.

Ordiziako Udaleko talde sozialistaren iritziz, Ordiziatik lagun dezakegu eta lagundu beharra dugu beste nazioetan eta kontinenteetan berriro ez daitezen gerta emakumeen aurkako indarkeriarik.

Ordiziako Udaleko talde sozialistaren iritziz, Ordiziatik lagun dezakegu eta lagundu beharra dugu Indian berriro ez dadin gerta, orain izan den bezala, emakumeen aurkako indarkeriarik.

HORREGATIK GUZTIARENGATIK

Udal honek:

1.- Bat egiten du, oraingo honetan,"change.org" plataforma Indian Jyoti Singh Pandey bortxatua eta bortizki eraila izan salatzeo mundu osoan lantzen ari den kanpainarekin. Halaber, Indiako Gobernuari eta botere judizialari eskatzen die gogoan hartzea beren herrialdean genero-indarkeria gora doala, eta gizarte zibilarekin batera lan egin dezatela mozio honetan aipatu diren neurriak lehenetsunez aplikatu ditzaten.

2.- Udalak dituen komunikazio-bideak baliatuta, change.org plataformaren kanpaina zabaltzeko konpromisoa hartzen du, Indiako agintariak emakumeen aurkako genero-indarkeriaren inguruan haien herrialdeak bizi duen errealitate lazgarria aldatzen eragile aktibo bihurtzeko daitezten.

3.- Genero-indarkeriari ikuspegi internazionalista batetik aurre egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.

Mozio honekin, mozioan aipatzen den kasu konkretua salatzea baino, genero indarkeriaren arazoa dela eta, momentua aprobetxatu nahi da, Indian neurriak har ditzaten horrelako kasuen aurrean. Teknologia berriak erabiliz-change.or sarea, eta "solidaritate" printzipioa aplikatuz Udalak ere bere aportazioa egin

behar du, nahiz eta arazoa Udalaren gainetik egon. Bukatu du esanez momentu egokia dela presioa egiteko, egun hauetan komunitate internazionalak begi guztiak Indian jarrita dituztelako.

Santamaria jn.

Adierazi du nahiz eta bere taldea ados egon mozioarekin, zalantzan jartzen duela ea beharrezkoa den horrelako mozioak Plenora ekartzea, eta berari iruditzen zaiola mozio bezala ekarri gabe, protestak beste modu baten ere egin daitezkeela. Horrelako ezbeharrak egunero gertatzen direnez, "solidaritate" printzipioa aplikatuta ere, ezin dela egunero honelako mozioak eztabaidatzen aritu.

Dubreuil jn.

Erantzun dio Santamaria jaunari beste kasu batzuetan ez dutela inongo arazorik izan mozioak onartzeko, eta adibide bezala "Tibet" en mozioa jarri du.

Santamaria jn:

Adierazi du bere taldeak ez zuela "Tibet" gaiari buruzko mozioa aurkeztu, eta berriro ere errepikatu du mozioaren alde bozkatuko badu ere, ez zaiola iruditzen foru hau denik egokiena honelako gaiak tratatzeko.

Alkate jn:

Adierazi du bere taldeak alde bozkatuko duela. "Change.org" sarea ez duela ezagutzen, baina badakiela sare horretan aukera anitzak ematen direla. Posible dela Santamaria jaunak esanda bezala, honelako gaiak tratatzeko foru hau egokiena ez izatea, baina badaudela gai batzuk duten garrantzi edo izan duten transzendentziarengatik Plenoan tratatu beharrekoak.

Maiza and

Adierazi du, Indian pasatu den kasua, sinbolo bezala eta adibide gisa hartu behar dela, eta horregatik kasu honetan mozio bezala tratatzea justifikatzen dela.

Alkate jn

Eztabaidarekin bukatzeko, adierazi du Plenoko Gai Batzordean, mozio hau sartzea erabaki zela, eta horregatik bozkatu egin behar dela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- EBPN Plan Estrategikoaren luzapena onartzea 2013 urterako.

Proposamena

2008ko urtarrilaren 23ko osoko bilkuran, Euskaren Erabilera Sustatzeko Plan Orokorraren 2008/2011 Plan Estrategikoa onartu zen (EBPN).

Une hauetan, Eusko Jaurlaritza Euskararen Aholku Batzordearekin batera, Euskararen Erabilera normalizatzeko Plan Orokorra berraztertzen ari da, XXI. mendeari begira dituen helburuekin.

Hori dela eta, Udalbatza Plan Estrategiko berria onartzeko guztiz gai den arren, komenigarria dela uste da 2012an egin zen moduan Plana 2013rako luzatzea.

2013ko urtarrilaren 23 Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa onartzea proposatu da:

AKORDIO PROIEKTUA

- **Beste urtebetez luzatzea, hau da, 2013ako, 2008/2011 eta 2012 urteetarako onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa.**
- **Akordio hau Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Zuzendaritzari jakinaraztea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Iturrioz in.

Adierazi du Ordiziako Udalak 2008. Urtean EBPN plana onartu zuela, eta 4 urteko iraupena izan duela. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Zuzendaritzarekin harremanetan jarri eta hark emandako aholkuaren arabera 2012. urtean urte betez luzatu zen. Aurten berriro ere EBPN plana urte betez luzatzea proposatzen da, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Zuzendaritzak proposatutakoaren arabera.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Ordizia Lantzen S.A.k HIE-22 “San Juan” gunean, permuta bitartez lursailak erosteko helburuarekin, Udal Osoko Bilkurak, 2010-06-25ko bileran onartutako bermea dela eta, bermearen epearen luzapena onartzea

Proposamena

IKUSITA:

- 2010-06-25ean eginiko Udal Osoko Bilkuran, Ordiziako bere gain hartzen zuela bermea, Ordizia Lantzen S.A.k HIE-22 “San Juan” gunean, permuta bitartez lursailak erosteko Honela jasota geratu zen:

ORDIZIA LANTZEN SA Udal Elkarteak, eta Ordiziako "San Juan" HIEko 22ko lurak eroste aldera, trukaketarako kontratuak izenpetuko ditu

ORDIZIA LANTZEN SAK honako lursailok bereganatuko ditu:

% 100	a.20.2/1 lursaila	8 etxebizitza libre	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.150 m2
% 35,70	a.20.2/6 lursaila	8 etxebizitza libre	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.150 m2
% 16,48	a.30.6 lursaila	5 etxebizitza / Garapen baxua	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 765 m2
% 59,06	a.30.7 lursaila	6 etxebizitza / Garapen baxua	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 920 m2
% 100	a.40.3 lursaila	25 BOE eta lokal komertzialak	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 2.850 m2 eta 520 m2 merkataritza-azalera
% 100	a.40.7/5 lursaila	10 BOE	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.124 m2

Lursail horien ordainetan, ORDIZIA LANTZEN SAK 4 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak emango ditu, Trukaketa Kontratuaren "Kalitate Memoria" I Eranskinean zehazten den bezala eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako HIE 22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailean (garapen baxuko bizileku tipologiakoa), lurzoru gaineko 613,32 m² eraikigarriak.

Trukaketaren balioa izango da: bi milioi hogeita hamabi mila zazpiehun eta berrogeita hamahiru euro eta hemeretzi xentimo (2.032.753,19 €).

"Trukaketa bermatze aldera, jabeek Ordiziako Udalaren abala eskatu diote ORDIZIA LANTZEN SARI; horrenbestez, honako akordioak hartzea proposatu da:

Ordaintzea bermatuko du Josefina Beracoechea Jauregui, María Milagros Múgica Beracoecheari, Jesús Múgica Beracoecheari eta Maria Isabel Múgica Beracoecheari, baldin eta, 2012ko abenduaren 31n ORDIZIA LANTZEN SAK 4 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak (Trukaketa Kontratuko "Kalitate Memoria I Eranskinean zehazten den erara eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako AIU.22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailean kokatuak) entregatzeko obligazioa beteko ez balu

Bermea solidarioki emango da obligaziodun nagusiarekiko, eskusio eta banaketa onurari berariaz uko eginez.

Ordiziako Udalak abal hori ordainduko du, notarioaren bitartez, Ordiziako Udaletxearen helbidean, adierazitako gehieneko kopururaino abalaren onuradunak egindako errekerimenduaren aurrean, abalaren balio-dataren barruan, eta bermatutako obligazioa bete dela egiaztatuko du.

ABAL hau etxebizitzaren jabetza emateko Eskritura Publikoa sinatzean automatikoki indargabetuko da.

X X X X X X

ORDIZIA LANTZEN SA Udal Elkarteak, eta Ordiziako "San Juan" HIEko 22ko lurak eroste aldera, trukaketarako kontratuak izenpetuko ditu

ORDIZIA LANTZEN SAK honako lursailok bereganatuko ditu:

% 28,49	a.20.2/3 lursaila	8 etxebizitza libre	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.150 m ²
% 15,60	a.30.3 lursaila	5 etxebizitza / Garapen baxua	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 765 m ²
% 16,05	a.40.6/1 lursaila	50 BOE	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 5.400 m ²

Lursail horien ordainetan, eta Ceberio-Enea eraisteagatik kalte-ordainetan (Birpartzelazio Proiektuan adostutakoaren arabera, 146.324,64 €), ORDIZIA LANTZEN SAK 2 etxebizitza eta horiei dagozkien

eranskinak emango ditu, Trukaketa Kontratuaren "Kalitate Memoria" I Eranskinean zehazten den bezala eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako HIE 22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailean (garapen baxuko bizileku tipologiakoa), lurzoru gaineko 306,66 m² eraikigarriak. Ceberio Sarasola anaiek 197.715,18 € emango dizkiote ORDIZIA LANTZEN SARI etxebizitzak jasotzerakoan.

Trukaketaren balioa izango da: zazpiehun eta hogeita bi mila hirurehun eta laurogeita lau euro eta laurogeita bi xentimo (722.384,82 €).

"Trukaketa bermatze aldera, jabeek Ordiziako Udalaren abala eskatu diote ORDIZIA LANTZEN SARI; horrenbestez, honako akordioak hartzea proposatu da:

Bermea solidarioki emango da obligaziodun nagusiarekiko, eskusio eta banaketa onurari berariaz uko eginez.

Ordiziako Udalak abal hori ordainduko du, notarioaren bitartez, Ordiziako Udaletxearen helbidean, adierazitako gehienezko kopururaino abalaren onuradunak egindako errekerimenduaren aurrean, abalaren balio-dataren barruan, eta bermatutako obligazioa bete dela egiaztatuko du.

ABAL hau etxebizitzaren jabetza emateko Eskritura Publikoa sinatzean automatikoki indargabetuko da.

"Ordiziako Udalak gehienez ere zazpiehun eta hogeita bi mila hirurehun eta laurogeita lau euro eta laurogeita bi xentimo (722.384,82 €) ordaintzea bermatuko du 15219050K NAN duen Luis Ceberio Sarasola jaunari eta 15219051C duen Ramon Ceberio Sarasola jaunari, baldin eta, 2012ko abenduaren 31n ORDIZIA LANTZEN SAK 2 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak (Trukaketa Kontratuko "Kalitate Memoria I Eranskinean zehazten den erara eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako AIU.22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailean kokatuak) entregatzeko obligazioa beteko ez balu.

Bermea solidarioki emango da obligaziodun nagusiarekiko, eskusio eta banaketa onurari berariaz uko eginez.

Ordiziako Udalak abal hori ordainduko du, notarioaren bitartez, Ordiziako Udaletxearen helbidean, adierazitako gehienezko kopururaino abalaren onuradunak egindako errekerimenduaren aurrean, abalaren balio-dataren barruan, eta bermatutako obligazioa bete dela egiaztatuko du.

ABAL hau etxebizitzaren jabetza emateko Eskritura Publikoa sinatzean automatikoki indargabetuko da.

- Berme epea 2012-12-31n amaitzen zela, eta data horretarako permuta xede ziren etxebizitzak amaituta egon behar zirela.
- Obren hasiera atzeratu zenez, obrak amaitzeko epea ere atzeratu egin dela 2013ko ekainaren 15a arte, eta aipatu behar da atzerapen hau dela eta, ez dagoela jabeen aldetik inongo eragozpenik.

ERABAKI PROPOSAMENA

Bermeen ondorioak 2013ko ekainaren 15a arte luzatzea, aipatuz Ordiziako Udalaren gainerako obligazio guztiak 2010-06-25ean jasotakoak direla eta ez dutela inongo aldaketarik.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn:

Gai honi buruzko azalpenak eman ditu eta azpimarratu du erabaki honen bitartez bermeen ondorioak 2013ko ekainaren 15a arte luzatzen direla, eta Ordiziako Udalaren gainerako obligazio guztiak 2010-06-25eko Udal Osoko Bilkuran jasotakoak direla eta ez dutela inongo aldaketarik.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- Alkatetza Dekretuaren berrespena, Ordizia Lantzen SA Udal Elkartearantzako abalaren ingurukoa.

Proposamena.

IKUSITA:

2012ko urtarrilaren 26ko Udal Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bitartez, Ordizia Lantzen S.A. enpresari abalatu zitzaion, Caixarekin 3.000.000 euroko kreditu kontu bat berritzeko.

Ordizia Lantzen S.A. obligazio honi aurre egiteko ezintasunaren aurrean, eta gaiak zuen presa ikusita, 2012ko abenduaren 28ko 1153 zenbakidun Alkatetzaren Dekretuaren bitartez, erabaki zen 1.200.000 euroko kopuruagatik (ordaintzeko pendiente dagoen kopurua da), kontu kreditua berritzea, 2013ko irailaren 15eko datara arte, erabaki hau hurrengo Udal Osoko Bilkuran berresteko baldintzapean.

AKORDIO PROIEKTUA

2012ko abenduaren 28ko 1153 zenbakidun Alkatetzaren Dekretuaren bitartez hartutako erabakia berrestea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du gaiak zuen presa ikusita (urtea bukatu aurretik eskriturak sinatu ahal izateko egin behar izan zen Dekretua) 2012ko abenduaren 28ko 1153 zenbakidun Alkatetzaren Dekretuaren bitartez, erabaki zela 1.200.000 euroko kopuruagatik (ordaintzeko pendiente dagoen kopurua), kontu kreditua berritzea, 2013ko irailaren 15eko datara arte, erabakia hurrengo Udal Osoko Bilkuran berresteko baldintzapean.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- San Joan HIE 22ko a.30.7. lursailaren Xehetasun Azterketa behin-betiko onartzea.

Proposamena

Arau Subsidiarioetako "San Joan" Hirigintza Interbentzio Eremuko a.30.7 lursailaren Xehetasun Azterketa onartzeko bideratu den espedientearen berri ematen da, Ordizia Lantzen, S.A.-k eskatuta eta Arantzazu Berasategi arquitectos-k idatzia.

2012ko otsailaren 3ko 12/1058 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren hasierako onarpenarekin jendaurrera zabaldu zen legeak ezarritako epean eta moduan, Udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarki bidez, 2012ko abenduaren 12ko 236 zenbakiko GAOn, eta 2012ko abenduaren 11ko egunkarian, eta ez dute alegaziorik aurkeztu.

2012ko urtarrilaren 2013-01-21ko Obra eta Hirigintza Delegazioaren aldeko erabakia ikusita, eta behin betiko onartu beharreko Udal Arkitektoaren txostena ikusita, Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak ondorengo erabakia hartu du:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- 2012eko uztailaren 13an Euskal Herriko Arkitektoen Eskola Ofizialak ikusonetsitako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako "San Joan" 22 HIEko a.30.7. lursaileko Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.

2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onartu den akordioa, testu arauemaile osoa barne, eta Gipuzkoako Foru Aldundian jakinaraztea hamar eguneko epean, eta baita Xehetasun Azterketako lurralde eremuko sustatzaile-jabe bakarrari ere.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du behin-betiko izaeraz onartzeko aurkeztu den espediente hau, Arau Subsidiarioetako "San Joan" Hirigintza Interbentzio Eremuko a.30.7 lursailaren Xehetasun Azterketa dela, Ordizia Lantzen S.A.-k eskatuta eta Arantzazu Berasategi Arquitectos-ek idatzia.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- San Joan HIE 22KO a.30.1. lursailaren Xehetasun Azterketa behin-betiko onartzea.

Proposamena

Arau Subsidiarioetako "San Joan" Hirigintza Interbentzio Eremuko a.30.1 lursailaren Xehetasun Azterketa onartzeko bideratu den espedientearen berri ematen da, Jesus Cincunegi Elustondo jaunak eskatuta eta Francisco J. Rodriguez Perez arkitektoak idatzia.

2012ko otsailaren 3ko 12/1065 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren hasierako onarpenarekin jendaurrera zabaldu zen legeak ezarritako epean eta moduan, Udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarki bidez, 2012ko abenduaren 12ko 236 zenbakiko GAOn, eta 2012ko abenduaren 11ko egunkarian, eta ez dute alegaziorik aurkeztu.

2012ko urtarrilaren 2013-01-21 ko Obra eta Hirigintza Delegazioaren aldeko erabakia ikusita, eta behin betiko onartu beharreko Udal Arkitektoaren txostena ikusita, Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak ondorengo erabakia hartu du:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- 2012eko uztailaren 5ean Euskal Herriko Arkitektoen Eskola Ofizialak ikusonetsitako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako "San Joan" 22 HIEko a.30.1. lursaileko Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.

2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onartu den akordioa, testu arauemaile osoa barne, eta Gipuzkoako Foru Aldundian jakinaraztea hamar eguneko epean, eta baita Xehetasun Azterketako lurralde eremuko sustatzaile-jabe bakarrari ere.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate in:

Adierazi du behin-betiko izaeraz onartzeko aurkeztu den espediente hau, Arau Subsidiarioetako "San Joan" Hirigintza Interbentzio Eremuko a.30.1 lursailaren Xehetasun Azterketa dela, Jesus Cincunegi Elustondo jaunak eskatuta eta Francisco J. Rodriguez Perez arkitektoak idatzia.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

11.- Kooperazio eta Garapen arloko 2012ko diru-lagutzen banaketa onartzea.

Proposamena

Kooperaziorako proiektuak garatzeko gobernuz kanpoko erakundeei diru laguntzak emateko arautzen duen arautegiarekin bat egin da, eta 2012 ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, 19 proiektu aurkeztu dira.

Honetarako aurrekontuaren partida **77.762,94 eurokoa** da.

Proiektuak aztertu ondoren, eta 2013ko urtarrilaren 23ko udaleko Osoko Bilkurarako gaien batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA:

Ondoren aipatzen diren diru-laguntzak onartzea, honako erakunde eta proiektuei:

1- MANOS UNIDAS. Prevención, sensibilización e intervención ante la problemática de violencia de genero. Honduras.

Emandako laguntza: 10.925 euro

2- FUNDACIÓN MUNDUBAT. Fortalecida la capacidad de análisis para la incidencia de las integrantes en la red de mujeres mesoamericanas. El Salvador.

Emandako laguntza: 10.925 euro

3- MEDICUS MUNDI GIPUZKOA. Fortalecimiento de las capacidades y destrezas de 100 mujeres microempresarias. Peru.

Emandako laguntza: 10.915 euro

4- MUGEN GAINETIK. Comunicación para la igualdad. Nicaragua.
Emandako laguntza: 10.855 euro

5- SOLIDARIDAD INTERNACIONAL. Mejora de calidad y el acceso a los servicios de salud sexual y reproductiva en Ramallah. Palestina.
Emandako laguntza: 10.925 euro

6- ASAMBLEA DE COOPERACIÓN POR LA PAZ. Mejora de las condiciones sociales y de acceso a servicios básicos de salud sexual y reproductiva de 27.728 mujeres. El Salvador
Emandako laguntza: 10.925 euro

7- PHALMA DROLMA. Mujeres, desarrollo y medio ambiente: las comunidades tibetanas más vulnerables en primer plano. India.
Emandako laguntza: 1.365 euro

8- SERSO SAN VIATOR DE EUSKAL HERRIA. Favorecer el acceso al mercado laboral de jóvenes sin escolarizar a través de ciclos formativos. Burkina Faso.
Emandako laguntza: 10.925 euro.

Ondoren aipatzen diren erakundeek aurkeztutako eskaerak ukatzea:

- 1- ROPKA. Promoción de la medicina tradicional Tibetana. Tibet.
- 2- TAUPADAK. Fortalecimiento de cultivos de platano. Bolivia.
- 3- HERRIAK ELKARLANEAN. Internado de chico/as. Benin.
- 4- FISC. Fortalecimiento de emprendimientos productivos. Paraguay.
- 5- AMIGOS SOLIDARIOS /MUKWANO LAGUN. Proyecto de ayuda a NEFAHA. Uganda.
- 6- AMIGOS SOLIDARIOS / MUKWANO LAGUN. Edificio escolar, educación preescolar. Uganda.
- 7- PROSALUS. Apoyo a iniciativas socioeconómicas. Mozambique.
- 8- OSCAR ROMERO. Mejora de la educación en nutrición. El Salvador.
- 9- ACTIVOS POR UN MUNDO SOLIDARIO. Alcanzando la inclusión de jóvenes con discapacidad. Nicaragua.
- 10- FELIX BALTISTAN FUNDAZIOA. Centro para el desarrollo profesional. Pakistan.
- 11- PAUS U MEDIA. Fortalecimiento de liderazgos comunitarios. Chile.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and.

Adierazi du guztira 19 proiektu aurkeztu direla, eta dirulaguntza banaketa honela egin dela:

Onartuak: 8:

- 7: 10.900,00 euro inguru.
- 1: 1.365 euro.

Baztertuak: 11.

Azpirarratu du aurten berdintasun ikuspegia ere kontuan izan dela, eta laguntzen diren 8 proiektuak oso sendoak direla. Bukatzeko esan du konturatu direla, azpiegitura administratiboa ondo antolatuta dituzten erakundeek abantaila dutela, zeren eta hobeto jantzitako proiektuak aukezten dituzte, eta aurrera begira agian errebisatu egin beharko dela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

12.- Eskaerak eta galderak

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.